

**LARRAULGO UDALA**

(GIPUZKOA)

**2010eko UZTAILAREN 1ean, LARRAULGO UDAL PLENO ARETOAN  
EGINDAKO OHIKO UDALBATZAREN AKTA**

2010eko uztailaren 1ean, Larraulgo Udaletxeko Pleno Aretoan, arratsaldeko 19.00 orduetan, Xabier Mujika alkatearen lehendakaritzapean, behean aipatzen diren zinegotziak biltzen dira.

ALKATEA: Xabier Mujika Pagola


ZINEGOTZIAK: Adela Mendiola Gomez  
Gotzon Jauregi Sarasola  
Karlos Irazu Muñoa  
Igor Barandiaran Perez de Arriluzea

DAZKARIA: Ane Gomez Urteaga

...//...

Alkate-lehendakari jaunak bilerari hasiera ematen dio, ondorengo gaiak tratatzen direlarik:

- 1. Ondoren adierazten den Udalbatzarreko akta onestu, hala badagokio:**
  - 2010eko ekainaren 10ean egindako ohiko bilkura.
- 2. Alkatetza ebazpenen berri ematea.**
- 3. Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateari 2010eko 1. Eta 2. Hiruhilabeteko ekarpena burutzea, hala bada.**
- 4. Paperezko Udal-mapa toponimikoa egiteko esleipena burutzea, hala bada.**
- 5. Bobide-buru etxearen atzean dagoen txabolarako bidea eta ondoko partzela hormigonatzeko baimena eskaera, I.U.A.**
- 6. Ardientzako estalpea bere jantokiarekin eta belarra jasotzeko lekua egiteko baimena eskaera, I.U.A.**
- 7. Eusko Jaurlaritzaren 144/2010 dekretuaren aurkako helegitearen onespena, Larraulen eskola txikia izateko.**
- 8. Hezkuntza sailari egin beharreko errekerimenduaren onespena, Larraulen eskola txikia izateko erabakia betearazteko.**
- 9. Ugalde etxe ondoan dagoen terrenoan txabola bat egiteko baimena eskaera.**
- 10. Fakturak eta ordainketak.**
- 11. Beste batzuk.**



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

### 12. Erregu, galderak eta mozioak.

.../...

#### **LEHENENGO PUNTUA**

#### **ONDOREN AIPATZEN DEN UDALBATZAREN AKTA ONESTU, HALA BADA.**

- 2010 urteko ekainaren 10eko Ohiko Udalbatzaren akta. Irakurri ondoren bertaratuak aho batez onestu dute.

#### **BIGARREN PUNTUA**

#### **ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA**

Alkate jaunak azkeneko Udalbatzarretik emandako ebazpenen berri ematen du:

19/2010 Alkatetza Ebazpena, ekainaren 22koa, EKAIN kabinetearen abokatuak diren Juan Landa Mendibe edota Alejandro Castro Ubetagoiena, Larraulgo Udalaren Ordezkapenean, bai Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailean eta baita ere edozein beste administrazioen aurrean, ager daitezzen eta Udal honi dagozkion espedienteak ikus eta azter ditzaten, izendatzea eta behar besteko ahalmen juridiko ematea, ebazten duena.

Bertaratuak jakinaren gainean gelditzen dira.

#### **HIRUGARREN PUNTUA**

#### **AIZTONDO ZERBITZUEN MANKOMUNITATEARI 2010eko 1. Eta 2. HIRUHILABETEKO EKARPENA BURUTZEA, HALA BADA**

Batzarkideak gaia mahai gainean uztea erabakitzen dute.


#### **LAUGARREN PUNTUA**

#### **PAPEREZKO UDAL-MAPA TOPONIMIKOA EGITEKO ESLEIPENA BURUTZEA, HALA BADA**

Ikusirik Larraulgo Udalak, paperezko udal-mapa egiteko asmoa duela, aurrekoa amaitu delako.

Ikusirik Larraulgo paperezko udal-mapa toponimikoa egiteko lau aurrekontu eskatu direla, hain zuzen: Ikermap, Basotec, Geograma eta Josu Tellabide-ri.

Ikusirik goian aipaturiko proposamenak aztertu ondoren, aurrekontu egokiena IKERMAP IBAETA-k aurkezturikoa dela.



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Ikusita aipaturiko kontratua, kontratu txiki bat dela, beraz, fakturaren onespenez nahikoa dela legeak agintzen duena betetzeko.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

### ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Larraulgo paperezko Udal-mapa toponimikoa egiteko kontratua IKERMAP IBAETA-ri esleitzea, 11.104.-eurotako balioarekin (BEZ kanpo).

BIGARRENA: 11.104.-eurotako gastua onestea.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri IKERMAP, GEOGRAMA, BASOTEC eta Josu Tellabideri ematea.

### **BOSTGARREN PUNTUA**

**BEOBIDE-BURU ETXEAREN ATZEAN DAGOEN TXABOLARAKO BIDEA ETA ONDOKO PARTZELA HORMIGONATZEKO BAIMENA ESKAERA, I.U.A.**

Ikusirik I.U.A. jaunak eginiko eskaera, non Larraulgo Beobide-buru baserriaren atzekaldean hormigoizko bide eta zola bat egiteko obra baimena eskaera egiten duen.

Ikusirik, Udal Aholkulari Teknikoa den Eba Erkizia Brion arkitektuak, 2010eko ekainaren 28an egindako txostenean dioena:


**“LARRAULGO BEOBIDE-BURU BASERRIAREN ATZEKALDEAN HORMIGOIZKO BIDE ETA ZOLA BAT EGITEKO ESKAERARI BURUZKO TXOSTENA**

*I.A.U. jaunak, Larraulgo Beobide-buru etxearen atzeko lursailean dagoen bide eta lurra hormigonatzeko baimena eskatzen du, egin beharreko lanen aurrekontua eta krokisa aurkezten dituelarik. Dokumentazio hau ikusirik, **ZERA ADIERAZTEN DUT:***

*Lursaila Beobide-Buru baserriaren atzekaldean kokatzen da, Larraulgo lur ez hiritargarriaren barruan.*

*Aurrekontuan, 338m<sup>2</sup>-ko azalera duen hormigoizko zola eta bide bat egiteko asmoa azaltzen da. Zolak 15zm-ko lodiera izango du eta bertan, euri urak bideratzeko kanalak egingo dira.*

*Beobide-Buru etxearen atzekaldeko urbanizazioaren konponketa hau baserriaren inguruko hobekuntza bat bezala ulertu daitekeenez, egokia izango da udal baimena ematea.*



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

*Dena den, inguruko lurren ezaugarriak ez aldatzeko lursailaren iragazkortasuna zainduko da.”*

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

### ERABAKITZEN DU:

LEHENGOA.- I.U.A. jaunak eginiko eskaera onestu, hau da, Larraulgo Beobide-Buru baserriaren atzekaldean hormigoizko bide eta zola bat egiteko baimena eskaera onestu, betiere Udal Aholkulari Teknikoa den Eba Erkizia Brion arkitektoak eginiko txostenean jasotzen dituen baldintzak betetzen baditu.

BIGARRENA.- Indarrean dauden Ordenantza Fiskalen arabera dagokion kitapena onartzea.

HIRUGARRENA.-Erabaki honen berri interesdunari ematea.

### **SEIGARREN PUNTUA**

### **ARDIENTZAKO ESTALPEA BERE JANTOKIAREKIN ETA BELARRA JASOTZEKO LEKUA EGITEKO BAIMENA ESKAERA, I.U.A.**

Ikusirik I.U.A. jaunak eginiko eskaera, non ardientzako estalpea bere jantokiarekin eta belarra jasotzeko lekua egiteko obra baimena eskaera egiten duen.


Ikusirik, Udal Aholkulari Teknikoa den Eba Erkizia Brion arkitektoak, 2010eko ekainaren 30 ean egindako txostenean dioena:

### **“LARRAULGO LUR EZ URBANIZAGARRIAN ARDIENTZAT ESTALPE BAT ERAIKITZEKO ESKAERIARI BURUKO INFORMAZIO TEKNIKOA**

*I.A.U. jaunak, Larraulgo lur ez hiritargarrin ardientzat estalpe bat egiteko baimena eskatzen du. Honetarako, estalpearen krokisa eta batzbesteko aurrekontu bat aurkezten du. Aurreko dokumentazioa ikusirik, ZERA ADIERAZTEN DUT:*

*Eskarian, estalpea ardien babeserako eta belarra jasotzeko erabiliko dela esaten da. Estalpeak 12x3 m ko azalera bat izango luke. Zutabeak burnizkoak izango lirateke, teilatuaren egitura egurrezkoa eta teilatuaren bukaera, txapa edo uralitazkoa. Ekainaren 17-an bisitaldi teknikoak egiten da, estalpearen kokapen zehatza ikusteko. Estalpearen atzealdea lurperatua geldituko litzateke, mendiko maldan integratua.*

*Estalpea, Beobideburu baserriaren lurretan kokatuko da, Larraulgo lur ez hiritargarrinaren barruan.*



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Larraulgo Arau subsidiarioen 72<sup>a</sup> artikulua, animalien babes moduko eraikinak lur hiritargarriezinean bidezkoak direla esaten du, beti ere irekiak mantentzen badira bere alboetan.

### Artículo 72.- Usos agrarios no profesionalizados

“Reciben la denominación de usos agrarios no profesionalizados aquellas explotaciones agrarias que no reúnen los requisitos de viabilidad y autonomía productivas exigidos para ser consideradas como usos de explotación agraria común. Deberán cumplir las siguientes exigencias:

a) Su implantación no exigirá la emisión del informe de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

b) Parcela mínima. La parcela o huerta labrada y trabajada de forma permanente que contenga una txabola tendrá un superficie mínima de 2.500 m<sup>2</sup>.

c) Condiciones de edificación: se autoriza la construcción de una txabola por parcela destinada a la guarda de aperos.

**Asimismo se permite la construcción de cubriciones para protección del ganado, siempre que sean abiertas por sus laterales.**

d) Superficie máxima construida: 20 m<sup>2</sup> para txabolas destinadas a la guarda de aperos.

e) Condiciones de la licencia. La licencia municipal se concederá siempre en precario. En caso de que un mismo titular trabajara dos o más parcelas situadas en el mismo entorno, solamente se autorizará la construcción de una txabola o caseta.”

48<sup>a</sup> artikulua, eraikinek bete behar dituen baldintzak markatzen ditu. Honen arabera, teilatuak teilaren kolorea izan beharko luke, **gorria**.

### Artículo 48.-Condiciones de tratamiento exterior de las edificaciones.

“-.Con caracter general se evitará la utilización de materiales cuyo color, textura y formas de acabado difieran ostensiblemente de los utilizados en las construcciones rurales tradicionales de la zona.

...


-.Como material de cubierta se utilizará preferentemente la teja cerámica, **autorizándose la utilización de otros materiales de coloración y textura similares.**

-.las intervenciones de nueva edificación conllevarán la adecuación ambiental de las edificaciones ubicadas en la misma parcela y propiedad.”

Larraulgo 69<sup>a</sup> artikulua, ukuiluak etxebizitzetatik gutxienez 50m-ko distantzia mantendu behar dutela esaten du ere.

Beraz, aurreko baldintzak betetzen badira, bidezkoa iruditzen zait obra baimena ematea.

Dena den, gogoratu beharko da, 72<sup>a</sup> artikulua obra baimena “prekarioan” emango dela esten duela.



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Gaia aztertutik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

### ERABAKITZEN DU:

LEHENGOA.- I.U.A. jaunak eginiko eskaera onestu, hau da, Larraulgo lur ez urbanizagarrian ardientzat estalpe bat eraikitzeko baimena eskaera onestu, betiere Udal Aholkulari Teknikoa den Eba Erkizia Brion arkitektoak eginiko txostenean jasotzen dituen baldintzak betetzen baditu.

BIGARRENA.- Indarrean dauden Ordenantza Fiskalen arabera dagokion kitapena onartzea.

HIRUGARRENA.-Erabaki honen berri interesdunari ematea.

### **ZAZPIGARREN PUNTUA**

### **EUSKO JAURLARITZAREN 144/2010 DEKRETUAREN AURKAKO HELEGITEAREN ONESPENA, LARRAULEN ESKOLA TXIKIA IZATEKO**

Joan den maiatzaren 28an, 100 zenbakiko E.H.A.A.-n, Eusko Jaurlaritzaren 144/2010 maiatzaren 18ko Dekretua argitaratu zen. Xedapen honen arabera, bestek beste, zenbait ikastetxe publiko sortzen dira baina hauen artean Larraul herriarentzat eskatutakoa ez da inondik inora azaltzen.

Beraz, Dekretu horrek ez dio Larraul Herriari bakarrik muzin egiten, baizik eta Eusko Legebiltzarrak onartutako legez bestekoari eta baita Hezkuntza Sailak 2009ko apirilaren 8an eman zigun erantzun idatziari.


Guzti hori kontutan izanik, Udal Osoko Bilkura honek, aho batez, aholkularitzak emandako aholku txostena kontutan izanik, ondorengoa

### ERABAKITZEN DU:

LEHENA: 144/2010 maiatzaren 18ko Dekretuaren aurkako epai administrari helegite kontenziosoa jartzea.

BIGARRENA: Ekain taldeko Miren Saratxaga de Isla abokatuak eginiko Txosten juridikoa onestea.

HIRUGARRENA: Helegite hori tartekatu ahal izateko, Udalak jadanik dauzkan boteretan azaltzen diren prokuradoreekin egin dezan edota abokatu eta prokuradore berrien aldeko botere notarial berria eman dezan, Alkate Jaunari behar duen ahalmen guztia ematea.



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

### **ZORTZIGARREN PUNTUA**

#### **HEZKUNTZA SAILARI EGIN BEHARREKO ERREKERIMENDUAREN ONESPENA, LARRAULEN ESKOLA TXIKIA IZATEKO ERABAKIA BETEARAZTEKO**

Ikusirik 2009ko apirilaren 8an Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikertze Sailak Larraulgo udalari igorritako idatzian jakinarazten zela 2010/2011 ikasturterako Larraulen hamabi urtetara bitarteko haurren eskolaratzeko Eskola Txikia sortzearen aldeko erabakia.

Ikusirik ordutik Eusko Jaurlaritzaren aldetik ez dela zentro berri hori eratzearen aldeko inolako betebeharririk burutu, ikasturte berria irailaeen hasteko delarik.

Ikusirik Eusko Jaurlaritzaren aurrean errekerimendu (erabaki honi atxikitzen dena) bat aurkeztu nahi dela 2009ko apirilaren 8an Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikertze Sailak hartutako erabakia betearazteko eta 2010/2011 ikasturtean Larraulen hamabi urtetara bitarteko haurren eskolaratzeko Eskola Txikia sortzeko.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

#### **ERABAKITZEN DU:**

**LEHENA:** Eusko Jaurlaritzaren aurrean errekerimendu (erabaki honi atxikitzen dena) bat aurkeztea, 2009ko apirilaren 8an Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikertze Sailak hartutako erabakia betearazteko eta 2010/2011 ikasturtean Larraulen hamabi urtetara bitarteko haurren eskolaratzeko Eskola Txikia sortzeko.

**BIGARRENA:** Alkate-Lehendakaria den Xabier Mujika Pagola jaunari aipaturiko errekerimendua aurkezteko ahalmena ematea.


### **BEDERATZIGARREN PUNTUA**

#### **UGALDE ETXE ONDOAN DAGOEN TERRENOAN TXABOLA BAT EGITEKO BAIMENA ESKAERA**

Ikusirik O.U.E. andreak eginiko eskaera, non Ugalde etxearen ondoan duen terrenoan txabola bat egiteko baimena eskaera egiten duen.

Ikusirik Udal Aholkulari teknikoa den, Eba Erkizia Brion Arkitektuak 2010eko ekainaren 30ean eginiko txostenean dioena:

#### ***“LARRAULGO 367 LURSAILEAN TXABOLA BAT EGITEKO ASMOARI TXOSTEN TEKNIKOA***



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

*O.U.E. andereak, Larraulgo 1 poligonoko 367 lursailean 20m<sup>2</sup>-ko txabola bat egiteko asmoa azaltzen du. Honetarako lekuaren ortofotoa, bordako oina eta altxaerak azaltzen dituen 5 planotxo eta aurrekontu bat aurkezten ditu obra baimena eskuratzeko. Dokumentazioa azterturik eta eskaerari erantzuten, ZERA ADIERAZTEN DUT:*

*Eskarian, txabola baratzeko tresneria gordetzeko erabiliko dela esaten da. Txabolak 20m<sup>2</sup> ko azalera bat izango luke. Paretak raseatutako blokez egindakoak izango dira. Teilatuaren egitura egurrezkoa litzateke eta bukaera teilazkoa.*

*367 lursaila Larraulgo lur ez hiritargarriaren barruan dago, beraz hirigintza-erregimen hiritargarriezina erabiliko dugu. Partzelak 2.727m<sup>2</sup>-ko azalera bat du. Arau Subsidiarioen 72<sup>a</sup> artikulua esaten duen bezala, nekazal erabilera ez profesionalizatuentzat gehienez egin daitekeen txabolek 20m<sup>2</sup>-ko azalera eraikigarria izango dute, beti ere txabola honi loturiko lursailak 2.500m<sup>2</sup> baino gehiago baditu.*

### Artículo 72.-Usos agrarios no profesionalizados

*“Reciben la denominación de usos agrarios no profesionalizados aquellas explotaciones agrarias que no reúnen los requisitos de viabilidad y autonomía productivas exigidos para ser consideradas como usos de explotación agraria común. Deberán cumplir las siguientes exigencias:*

*a) Su implantación no exigirá la emisión del informe de la Diputación Foral de Gipuzkoa.*

*b) Parcela mínima. La parcela o huerta labrada y trabajada de forma permanente que contenga una txabola tendrá una superficie mínima de 2.500m<sup>2</sup>.*

*c) Condiciones de edificación: se autoriza la construcción de una txabola por parcela destinada a la guarda de aperos.*

*Asimismo se permite la construcción de cubriciones para protección del ganado, siempre que sean abiertas por sus laterales.*

*d) Superficie máxima construida: 20 m<sup>2</sup> para las txabolas destinadas a la guarda de aperos.*


*e) Condiciones de la licencia. La licencia municipal se concederá siempre en precario. En caso de que un mismo titular trabajara dos o más parcelas situadas en el mismo entorno, solamente se autorizará la construcción de una txabola o caseta.”*

*Kanpo itxurari buruzko 48<sup>o</sup> artikulua berriz honela dio:*

### Artículo 48.-Condiciones de tratamiento exterior de las edificaciones.

*“.-Con carácter general se evitará la utilización de materiales cuyo color, textura y formas de acabado difieran ostensiblemente de los utilizados en las construcciones rurales tradicionales de la zona.*

*.-Como material de fachada se utilizará el revoco pintado y la piedra, prohibiéndose expresamente las terminaciones de bloque de hormigón visto y de*



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

*ladrillo caravista, aunque la utilización de este último material se admitirá siempre que no supere el 25% de la superficie de cada fachada.*

*-.Como material de cubierta se utilizará preferentemente la teja cerámica, autorizándose la utilización de otros materiales de coloración y textura similares.*

*-.las intervenciones de nueva edificación conllevarán la adecuación ambiental de las edificaciones ubicadas en la misma parcela y propiedad.”*

*Honen arabera, dokumentazioan azaltzen diren materialak eta txabolaren kanpo itxura, egokiak dira.*

*69ª artikuluaaren arabera, eraikina ondoko partzelatik 8 m-tara egon beharko da gutxienez.*

*Beraz, aurreko baldintzak betetzen badira, bidezkoa iruditzen zait obra baimena ematea. Dena den, obra egin aurretik, lursailaren jabetza argitu beharko da udaletxean.*

*Ohartu beharrekoa da, gaur egun Larraulgo Plan Orokorraren idazketarekin hasi berriak garela, kaskoaren inguruko lursail guztiak aztergai ditugularik, eta 72ª artikulua obra baimena “precarioan” emango dela esaten duela.”*

Gaia aztertutik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

### ERABAKITZEN DU:

LEHENGOA.- O.U. andreak eginiko eskaera onestu, hau da, Larraulgo Ugalde etxe ondoan dagoen terrenoan txabola bat egiteko baimena eskaera onestu, betiere Udal Aholkulari Teknikoa den Eba Erkizia Brion arkitektoak eginiko txostenean jasotzen dituen baldintzak betetzen baditu.


BIGARRENA.- Indarrean dauden Ordenantza Fiskalen arabera dagokion kitapena onartzea.

HIRUGARRENA.-Erabaki honen berri interesdunari ematea.

### **HAMARGARREN PUNTUA** **FAKTURAK ETA ORDAINKETAK**

Alkate-Lehendakari jaunak ondorengo faktura zerrenda aurkeztu du:

BABESA SUZAI	133,66
KEY-LAN	39,15
EBA ERKIZIA	1.096,26



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

EUSKALTEL	204,96
IBERDROLA	8,00
IBERDROLA	115,16
IBERDROLA	233,83
IBERDROLA	30,25
IBERDROLA	9,70
IBERDROLA	-19,57
IBERDROLA	-3,91
KOPIDIN	156,60
IRATZE	200,30
LASURTEGI ATXEKI	272,60
ELECTRICIDAD ZIZURKIL	600,30
IBERDROLA	101,95
IBERDROLA	31,18
IBERDROLA	108,46
IBERDROLA	134,19
MOVISTAR	90,06
MOVISTAR	17,69
MOVISTAR	20,43
MOVISTAR	113,76

Udalbatzarrak **ahobatez** hurrengoa,

ERABAKITZEN DU

BAKARRA.- Aipaturiko fakturak, denera **3.695,01** Eurotako kopurua osatzen dutenak onartzea.


### HAMAIKAGARREN PUNTUA BESTE BATZUK

#### **11.1. TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAK EGINIKO ESKAERAREN AZTERKETA**

Ikusirik Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitzak eginiko eskaera, non azaltzen duten Hitza egunkariak uztailean tolosaldean barrena liburua kaleratu behar dutela, horretarako 100 eurotako diru-laguntza eskaera egiten dute, onartu ezkerro Larraulgo armarría agertuko da liburuan.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

LEHENA: Tolosaldeko eta Leitzaldeko hitza egunkariak uztailean tolosaldean barrena liburua publikatzeko 100,00 eurotako diru-laguntza ematea.

BIGARRENA: Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitzari jakinaraztea, Tolosaldean barrena liburuaren 100 ale Larraulgo Udalean utzi beharko dutela.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitzari ematea.

### **HAMABIGARREN PUNTUA** **ERREGU, GALDERAK ETA MOZIOAK**

Ez dira azaltzen.

*Beste gairik ez dagoenez, arratsaldeko 20.20 orduak direnean Alkate jaunak bilera amaitutzat ematen du, nik, Idazkari-Kontuhartzaile naizen honek akta honetan jasotakoa ziurtatzen dudalarik.*

ALKATEA

IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA